

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Nekeaz



ARITZ GALARRAGA

24 orduko guardiak egiten dituen erizain prekarioaren nekadura ulergarria da, noski. Hoteletako gelak bata bestearen atzetik garbitzen dituen kelly esplotatuaren akidura ere bai, nola ez. Egun erdiz pedalei eragitera behartuta dagoen rider autonomoaren unadura eztaba daezina da, bistan da. Baina eta zer gertatzen da egun osoa eserita eman, adibidez ordenagailu aurrean, bulego batean, egunaren atzetik eguna, eta ohera leher-tuta joan, baiki, baina ohetik altxa ere pott eginda, gogorik gabe, ezertarako gauza ez izanik bizi denarekin? Nekatzeko ezer egin ez, ustez, eta nekatuta? Chantal Akermanen narrazioko emakumeak dio: "Akitutako pertsona bat naiz", eta ez da erizain, ez kelly, ez rider ere. Bizitzaz nekatuta dagoen beste pertsona bat gehiago da, besterik ez.

Nekea betidanik egon da gure artean, ados, gizakiaren mui-nean dagoen zera bat da. Hain zuzen, gizakiaren mugetarik bat litzateke, den bezala gaixotasuna, zahardadea, heriotza. Baina nekearen pertzepzioa ez da izan garai guztietan berdina. Berriki arte nekea lotzen bazen lan fisikoarekin, azken garaiotan neurri-gabe ugaritu da bestelako neke bat, isilagoa, ikusezinagoa. Lanetik etxera zabaldu da, aisialditik eguneroko jokabideetara, gure ahultasun, zaurgarritasunak agerian utziz. Munduan egoteko manera bat bilakatzeraino. Neke ikaragarria da bizi dugun garaiaren ezaugarria. Gabeziak, oztopoak, porrotak, inoiz ez dugu gaur bezainbeste motibo izan nekatutik egoteko. Georges Vigarello: gizajendearen autonomiak gora egin duen neurri berean egin du gora nekeak, aukeratu ahal izateak, edo aukeratu ahal izatearen ametsak, ahitzen gaitu; pixka bat beste Georges baten, Perec, *Gauzak* eleberriko bikoteari gertatzen zaiona, bizi nahiko luketenaren eta bizi duten egunerokoaren arteko kontraesanak abailtzen dituela. Norbera izateak nekatzen gaitu. Esan dezagun argi: nekez soportatzen dugu geure burua. Horrekin bizitzen ikasi behar dugu, ordea. Gure mugekin negoziatzen. Labur, nekea onartzen. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

ABERRI EGUNA REN BEZPERAN... ...UZTARRI EGUNA!



"ALOKAIRUA ARAUTZEA EZINBESTEAN EMAN BEHARREKO PAUSOA DA"

ERNAI GAZTE ANTOLAKUNDEA

Etxebizitza lortzeko eta ondorioz gazteek emantzipatzeko duten arazoa mahai gainean jarri du Ernaik. Europan batez beste 26 urterekin emantzipatzen dira; Hego Euskal Herrian aldiz, 30 urterekin. Neurri zehatzak proposatu dituzte. Hala nola, etxe kaleratzerik ez egitea, alokairu soziala eta etxebizitza publikoa bultzatzea, okupazioa despenalizatzea... eta lehentasunezko jo dute Euskal Herriko administrazioek alokairua arautzea. **2021/03/23**

